

Intsumisioaren aurkako errepresioa gelditzea galdegin dute 70 lagunek

Euskal gizartearen sostengua eskatu dute deiaren izenpetzaileek

Intsumisioen aldeko kanpaina berria aurkeztu zuten atzo Baionan '70ren deia' izeneko txostena izenpetu duten bost kidek. Armadari ezetza ematen diotenei sostengua ematea eskatu dute testuaren izenpetzaileek, azpimarratuz Kittu Lazkarainen egoera larria. Apirilaren 15ean manifestaldi nazionala izanen da agiria izenpetu dutenek deiturik.

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Intsumisioekiko elkartasuna adieraztea eta zabaltzea beharrezkotzat jo baitute armada egiteari uko egin diotenei, euskal gizarteari dei berezia egitea erabaki du 70 lagun ospetsuk osatu duten taldeak. Jakes Abeberri Miarritzeko auzapezordeari egokitu zitzaion abiatutako kanpaina aurkeztea atzo goizean Baionan eta eginkizun hori pozez beterik egiten zuela azpimarratu zuen.

MAIAK — Militarismoaren Aurka Intsumisioaren Alde taldeak — kudeaturik, Euskal Herriko 70 lagun ospetsuk, Iparraldeko zein Hegoaldeko, euskal intsumituen aurkako errepresioa gelditzea, intsumiso presoak askatzea eta Kittu Lazkarainen egoera konpontzea eskatu dute. Probintzia bakoitzean 10 lagunek izenpetu dute deia eta horien artean, besteak beste, kantariak, kirolariak, sindikalistak, langileak, medikuak, hautetsiak, irakasleak, abokatuak eta kazetariak daude.

Deiaren izenpetzaileek aldarrikatu zuten «intsumisioek mezu itxaropentsua eta emanorra ekartzen diote euskal gizarteari». Alabaina, «Frantziako eta Espainiako Estatuek gero eta gogorrago zigortzen dituzte» salatu zuen taldeak, oroituz 200 baino gehiago presondegitatu dituztela eta Kittu Lazkarai bi aldiz deitu dutela eta bi aldiz kondanatu urtebetetik gorako zigorrak betetzeraz. «Errepresio politiko hori salatu nahian, eta euskal intsumisioekiko elkartasuna zabaltzeko, euskal gizarte dei honen izenpetzera gomitatzeko, baita antolatutako manifestaldian parte hartzerat ere», dio 70ren deiak. Hots, «Kittu ez hunki, intsumituekiko elkartasuna» lelopean manifestaldi nazionala iraganen da apirilaren 15ean. Zenbait egun lehenago, armada-aren aurkako taldeek kanpaina Hegoaldean aurkeztuko dutela azpimarratu zuten antolatzaileek «intsumisioekiko elkartasuna ar-



70 izenpetzaileetatik bostek parte hartu zuten atzoko aurkezpenean.

L.F.

PUNTUZ PUNTU

Hamar lagun herrialdeko

Euskal kultur munduan ezagun diren 70 lagunek izenpetu dute intsumisioaren aldeko agiria; Euskal Herriko probintzia bakoitzeko hamarrek.

- **ARABA:** Eneko Beramendi (Gazte asanbladako), Xabier Elorriaga (LABeko sindikalista), Toño Hernandez (intsumiso preso ohia), Eduardo Lamo (Hala Bedi Irratiko kidea), Roberto Landa (komikilaria), Pablo Lopez Luzuriaga (intsumiso kondenatua), Cesar Manzanos (soziologoa), Antxon Morcillo (intsumisoa), Ruper Ordorika (kantaria), Triku (Bizkar Hezurra kantaria).
- **BIZKAIA:** Jone Goirizelaia (abokatua), Jon Idigoras (Kongresurako diputatua), Unai Iturriaga (bertsolaria), Karmelo Landa (EHUko irakaslea), Roberto Moso (Zaramako kantaria), Ruben Nieto (Gaztegin-eko kazetaria), Jonan Rekondo (kazetaria), Alex Sardui (Exkixuko kantaria), Arantxa Urkaregi (EHUko irakaslea), Mario Zubiaga (EHUko irakaslea).
- **GIPUZKOA:** Pello Aierbe (agitaratzailea), Rafa Diez (LABeko sindikalista), Eva Forest (idazlea), Felix Iñurrategi (mendizalea), Mikel Laboa (kantaria), Igor Makazaga (Erreka taldeko arraunlaria), Alfonso Sastre (antzerki idazlea), Txillardeggi (idazlea, linguista), Amaia Zubiria (kantaria), Jose Luis Zumeta (margolaria).
- **LAPURDI:** Jakes Abeberri (Miarritzeko auzapezordea), Andde Agerre (pilotaria), Robert Arranbide (Hendaia hautetsia), Martine Bisautia (sindikalista), Camille Frossard (CDDHPBko zuzendaria), Petto Olhagarai (apeza), Peio Ospital (kantaria), Mixu Mixelena (kantaria), Piarres Xarriton (Baionako hautetsia), Iñaki Goihenetxe (irakaslea).
- **NAFARROA:** Enrique Villareal 'El drogas' (Barricadako kantaria), Juan Garcia Blasco (Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorea), Eukeni Bustingorri (Osasunako kapitaina), Jesus Lezaun (apeza, teologoa), Migeltxo Saralegi (harrijasotzailea), Montxo Armendariz (zine zuzendaria), Tomas Urzainki (abokatua), Mari Abrego (mendizalea), Julian Retegi (pilotaria), Elena Taberna (zinemagilea).
- **NAFARROA BEHERA:** Ernest Alkat (bertsolaria), Marie Andree Arbelbide (Heletako auzapeza), Txomin Arranbide (Urepeleko auzapez ohia), Sauveur Bacho (sindikalista), Ienofa Cuisset (Berdeak taldeko kidea), Jon Harlouxet (Euskaldun Gazteriako permanentea), Santxo Iturrioz (Frantziskotarra), Koxe Larre (Medikua), Maialen Lechardoi (Irulegiko irratia), Txomin Vouillat (CCDHPB).
- **ZUBEROA:** Leonie Agergarai (sendagilea), Itxaro Borda (idazlea), Allende Etxart (Xubero Botzaren zuzendaria), Niko Etxart (kantaria), Joseph Godement (ELBko sindikalista), Christine Meynard (irakaslea), Maite Tauzin (langilea), Herve Thépault (eragozle ohia), Marie Jo Thornari (Zalgizeko auzapeza), Pierre Vissler (Irrati animatzailea).

giki erakustea beharrezkoa baita».

«Armadari buruzko lege frantsesak eta espainolak aldatu egin behar dituzte» azpimarratu zuen Jakes Abeberri, beste garaiko legeak baitira bere ustez. Alabaina, argi du Abeberri aldaketa ez dela egun batetik bestera izanen «gaia minbera baita», nahiz eta Belgikan ere gazteak ez dituzten

gehiago bortxatzen armadara joateko. «Eratzen ari den Europaren baitan beharrezkoa da Estatuek gelditzea armaden azkartzea eta horiek gazteekin osatzea» gehitu zuenez. Hegoaldeko armadari emandako ezetza nahiko adibide adierazgarria iruditu zaio, bere ustez «gizarteko lagun franko armadaren aurka azaldu baitira han».

Ondoren, Marie Jo Thornari Zalgizeko auzapezak «sostengu zabal eta herrikoia» emateko deia egin zuen, azpimarratuz datozen egunetan informazio zabal emango dela toki anitzetan. Deia izenpetzeaz gain, Bodeleko epailei edo Justizia Ministerioari gutunak bidaltzeko eskatu zuen Marie Jo Thornari auzapezak.

LABURREAN

OSAKIDETZAKo erizainak gehien irabazten dutenak

Osakidetza erizainak dira Espainiako Estatuko osasun sarean dirusaririk handiena jasotzen dutenak SATSE sindikatuaren arabera. EAEko osasun sistema publikoan ospitaleetan lan egiten duten erizainek 3,2 milioi pezeta (128.000 libera inguru) irabazten dute urtean, eta lehen laguntzarako zentroetan lan egiten dutenek, berriz, 3.150.000 pezeta. Insalud-eko erizainek bi milioi pezeta pasatxo besterik ez dute jasotzen urtean ●

ALMEIDA kexu agintarien % 96 gizonak direlako

Donostiako Casares Kultur-Etxean hitzaldia eman zuen atzo Cristina Almeida abokatu eta IUko kide ezagunak, emakumea eta elkartasunaren inguruan. Kexu agertu zen Almeida munduko agintarien % 96 gizona direlako eta «mundu desastre honen erantzukizuna proportzio berean» euren dela erantsi zuen. Egoera sozialak emakumea gero eta gehiago politikan sartzea bultzatzeko duela uste du Almeidak ●

BASURIKO enpresa batean materiala lapurtzeagatik atxilotua

Ertzaintzak 24 urteko M.A.S.P. gazte bilbotarra atxilotu zuen herenegun gaueko bederatzi terdiak aldera. Atxilotuari Basauriko enpresa batean ia milioi erdi pezeta (20.000 libera) balio duen materiala ostu izana egotzen dio Poliziak. Lapurketa izan zen lekuan utzitako hatz markengatik ezagutu ahal izan dute ●

BILBOKO klub batean osten saiatu ziren bi lagun atxilotuak

Ertzaintzako agenteek 30 eta 28 urteko D.G.T. eta D.F.R. bilbotarrak atxilotu zituzten atzo, Bizkaiko hiriburuko klub batean osten saiatu izanaz akusatutik. D.G.T. aurretiaz hotel-kate honek Deustuan daukan jatetxe batean lanean jarduna zen. Jatetxe horretatik giltza sorta bat desagertu zen iragan otsailaren 13an ●